

ALEGIA . Gazteen bertso paper lehiaketa maiatzaren 11n izango da.

Eskolako liburutegian egingo dituzte, adinetan eta mailatan banatua; helduen epea maiatzaren 18an bukatuko da

Nerea Urbizu

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak duela 10 egun iragarri zuen aurtengo bertso paper lehiaketa, baina ez zeuden gaztetxoek hainbat datu zehaztuta. Maiatzaren 11 izango da bertsoak idazteko eguna.

Eskolakoekin egon dira umeen bertso-paper lehiaketa nola egin erabakitzeke antolatzaileak. Azkenean hauxe erabaki dute: maiatzak 11 ostirala, 13:30ean hasita eskolako liburutegian elkartuko dira.

Nahi duten umeei hartuko dute parte. Aurrena 14:30a ingurura arte DBHko parte-hartzaileak izango dira, hau da, 12tik 16 urte bitartekoak. Halere, hau baieztatu gabe dago oraindik, bertako zuzendariarekin data eta orduak zehaztu gabe baitaizkagu, argitu zuten antolatzaileek. Hau guztia San Juan Herri eskolako zuzendariarekin hitz egin dugu, baina orain DBHko (Aralar institutoko) zuzendariari komentatu behar dio.

Bestalde, 8 urtetik 12 urte artekoek, 14:15etik 15:15 ingurura arte 3. eta 4. mailakoek parte hartuko lukete, eskolako liburutegian ere, eta 5. eta 6. mailakoek 15:15etik 16:00ak arte. Ordu hauek gutxi gora beherakoak dira. Bi taldeetakoei bizpahiru gai emango dizki-ete bertsoak edo koplak egiteko. Sariak emateko garaian 8-12 eta 12-16 urte tarteari banatuko dituzte. Beti ere partaide kopuruaren arabera ikusiko genuke lehiaketako sari-emateak nola egin.

Bertso paper asko aurkeztuko balira, sorpresaren bat edo beste izan daitekeela ere argitu dute antolatzaileak. Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak animatu egiten ditu bertsozaleak, lehiaketa honetan ere aritu daitezten.

Helduen epea irekita

Helduen bertso paper lehiaketako epea zabalik dago, eta entregatzeko epea maiatzaren 18a izango da. Alegiko Kultur Etxean edo helbide elektronikoz bidal daitezke: zazpiastorengainean. Gutxienez 5 eta gehienez 10 bertso idatzi behar dira eta erabilitako doinua eta izenburua zehaztu egin behar da, argi eta garbi.

Gutunazal itxi batean bertso lanarekin eta beste gutunazal batean egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia... jarrita. Bi gutunazal batean egilearen ezizena jarri behar da.

Bertso afariren bat egin nahi dute sariak banatzeko mementua egiteko, eta bestela ere bai, iaz ere egin baitzuten, eta oso pozik geratu ziren antolatzaileak.